

## egunekoa

Angel Bidaurrezaga eta Koldo Callado

(EHUko Medikuntza irakasleak)

# Medikuntza ikasketen euskalduntzea

**1936** urtean, orduko Eusko Jaurilaritzaren ekimen bat Eusko Irakastola Nagusia sortzea izan zen, orduko unibertsitate gabeko euskal eremuan hasiera bat edukitzeko. Ekimen hori Basurtuko ospitalean Medikuntza Fakultatea sortzea izan zen, eta garaiko guda egoera eta Eusko Jaurilaritzak beste iraun zuen, hau da, hilabete eskas batzuk. Fakultate horretan, erdarazko ikasgaiak ziren nagusi, baina tartean euskara ikasgai bat zegoen; beraz, hau esan dezakegu izan zela osasun ikasketen eta euskara loturaren hasierako sorrera antzua.

Handik ia berrogei urtera 1973an berriro Bilbon Medikuntza Fakultate berri bat sortu zen, hori ere erdara hutsean, 1956 urtean Iruñeko Opus Deik sortutako Medikuntza Fakultatea bezala. Hala ere, irakasle gutxiaren ekimenez eta kanpotik UEU berriaren bultzadarekin hasi ziren ikasgai eta mintegi batzuk euskaraz ematen. Euskara, 1989. urtean bere lehen plangintzaren arabera, aurrerapauso batzuk hasi zen ematen Fakultate eta eskolatan, eta nahiz eta hasierako asmoek bilakaera sendo bat aurreikusten zuten, ordutik honako esperientziak agertu digu izan diren oztopo handiak plangintza hori atzeratzeko. Tamalez 1999. urteko euskararen II plangintzak lituzkeen asmo onak berriro arazo bereberekin aurkituko dela aurreikus dezakegu.

Eta zein da arazorik handiena? Ba, nahiz eta azken urteetan euskal lerroko eskariak nabarmen gora egin, ez dela behar adineko irakaslerik kontratatu. Horrek ondorio ekarri du? Adibidez, 1989 urteko euskaren plangintzaren helburuak

oraindik ere beteta ez edukitzea. Horren zergatia azaltzeko, unibertsitateko agintariak irakaslegai falta zegoela adierazi dute, behin eta berriz, baina hori gaur egun ez da egia. Baditugu orain doktore euskaldunak, sendagile eta erizain euskaldun prestuak, osasun arloetako euskara probetara aurkezten direnen kopuruak zenbatzea besterik ez dago, baina plazak ez dira behar bezala sortzen. Batzuetan dirurik ez dagoelako, bestetan borondaterik ez dagoelako, eta bestetan sortzen diren plazen baldintza kaskarrengatik. Eta azken hori izan daiteke hurrengo urte-etako arazorik larriena, azaldu dezagun pixka bat.

Normalean unibertsitateetako irakasle euskaldunek erdarazkoak baino lan baldintza txarragoetan lan egiten dute: gero eta ikasle gehiago dituztenez, erdarazkoak baino klase gehiago eman behar dituzte, ikerketarako denbora gutxiagorekin, material berria sortu beharra eta abar. Arazo horiek larriago dira osasun ikasketetan, eta, hala, adibidez medikuntzako irakasle euskaldunak guztietatik %5 badi-ra ere (545etik 25), karrerako kredituen ia erdiak ematen dituzte. Hori lehen zikloan gertatzen bada, hots ospitaleko azken hiru urteak egin aurretik, bigarren zikloko egoera ez da batere egokiagoa izango. Kontuan hartu behar da, bigarren zikloko irakasleek Osakidetzako langileak izan behar dutela eta bere espezialitateko ikasgaietan adituak Fakultateko irakasleak izateko. Beraz, bere lanbide nagusiaz gain, lanbide partzial bat eduki nahi dutenak dira bigarren zikloko irakasleak. Arazo hori askoz ere handiagoa da UPVko Medikuntzako Fakultateak ez duelako hi-

tzarmen finkorik bigarren zikloa ematen den ospitaleetako agintarekin, hau da Osakidetzarekin, erizain eskolak duen bezala. Aspaldiko gabezia hori, ospitale unibertsitario baten gabezia, handiagoa da euskara aurreratzeko arlo honetan, are gehiago kontuan hartzen badugu Osakidetzak oraindik ere, hogeit urte pasa ondoren (!!!), ez duela euskalduntze planik martxan jarri ere egin. Eta noski, Fakultatearekin konbeniorik ez dagoenez, plan horren zirriborroetan ere ez da kontuan hartzen bigarren zikloetako irakasle euskaldunen beharrik ere.

Zer egin horren aurrean? Euskararen bigarren plangintzak ospitale bitan euskalduntze prozesua martxan jartzea aurreikusten du, Basurtun eta Donostian. Hala ere, oraindik ez da irakasle berri bat ere kontratatu asmo horiek betetzeko. Horren aurrean, diru gabeziaren aitzakia modu erraz batez konpon daiteke: edo erdarazko lerroan soberan dauden irakasle-etatik kopuru handi bat euskalduntzen da, edo errekurtsio horiek erabiltzen dira irakasle euskaldun berriak kontratatzeke. Beste konponbiderik ere badago, adibidez, ospitale kliniko unibertsitario bat egitea, eta bertako langileen kontratuan irakaskuntza ere sartzea konbenio egoki batekin. Euskarari dagokionez, ospitale hori guztiz, edo ahal dena behintzat, euskalduna izateak hobetuko luke egoera. Argi dago euskararen osasunarentzat guzti euskaldunak sortzea ezinbestekoa dela, eta ez orain bezala erdal itsasoan euskal irakasleria irla bat bezala egotea. Euskarak bere unibertsio propioa behar du osasun arloan ere; aukera eta baliabiderik ez dira falta; erabaki bat bai, ordea.

## zutabea

Juan Kruz Lakasta

Hotza

**G**arai batean komun guztietako zoluak terrazozkoak ziren, egun egindako komun guztiek teila koloreko baldosazko zoluak dituzten bezala. Amaren etxeko komuneko zolua halakoa zen, terrazozkoa, duela 20 bat urte —20 bat urte!— baldosa berdez berritu zuten arte. Inongo marrazkirik gabeko baldosa berde guztiz homogeenok jarri zituztelarik, komunean tebeoak, egunkariak, liburuak irakurtzen hasi nintzen. Ordura arte ez nuen irakurgaien beharrik. Ongi pasatzen nuen besterik gabe terrazozko harri txiki koloretsuek, beren kaxa, irudiak osatzen zituzten. Komunuzuloaren aurreko baldosan irudirik agerikoena, gehien errepikatzen zena, ilea zapi batekin estalita zeraman atso kokotx zein sudurluzearena zen. Baina baziren gehiago. Begirada gehiago lausotuz gero, atsoaren zapia kanguro bilakatzen zen. Soa eskuinerago paratuz gero, idi pareia ikus zitekeen, uztarri eta guzti. Eta, ikastolan geografia ikasten hasi ginelarik jabetu nintzen, idi parearen gainean Euskal Herriko mapa ageri zen: Bizkaia burua, Araba bularra, Gipuzkoa bizkarra, Iparraldeko hiru herrialdeak ipurdia eta Nafarroa hankarte eta hankak.

Gaur EGUNKARIAren Iruñeko ordezkarietako komunean izan naiz, besteak beste, EGUNKARIAren gaurko —atzoko— alea irakurtzen. Ekonomia orrialdeekin, Hego Euskal Herrian greba deialdia aurreratzeko ELAren eta LABen erabakiaren inguruko informazioarekin ari nintzela, kezkatutik, egunkaria bazterrean utzita zoluari egin diot so. Iruñeko ordezkarietako komuneko zolua sintasolezkoa da. Egurrezko zolua imitatzen badu ere, manta baten antza du. Eta halako batean iraganak eta orainak, terrazozko Euskal Herriak eta sintasolezko mantak bat egin dute nire kaskoan metafora osatzeko: deialdia aurreratu sindikatu abertzaleek mantarekin ongi estali dituzte burua, bizkarra eta bularra, baina babesik gabe utzi dituzte hankak, hankarte. Aintzat hartu beharke lukete hankarte hozten delarik, zaila dela berotzea, altxatzea —metafora falokrazia- ren eremura eramanda—, batez ere, babesik gabe uztea salbuespena baino ohitura denean.

## seiko urrea

Mattin Irigoien



Bestearen luma arazo...

**E**zterenzubiko garrak hauspean gorritzen ari zirenean, auzitegian agertu da ke zuri eta berdin beltzik. Ez ditut drama horretan hunkiak diren hilak, kolpatuak, beren familiak edo su-emaile akusatua aipatzen. Beren sufrimendua ikusita ez dut hitzik, eta keinuak dituzkete behar, nork bere dolu lana errazteko.

Afera gertatuaz haratago zabaldua izan da eta lo zeunden mamu anitz azalera ekarri, batzuen «halabehararen» inkantazio eta besteen «iraganeko gibelkoikerien ezazolkeria» aurpegiatzearen artean banatuz hitz hartzeak.

Ke zuria, zurikeriazkoa, atera da laborari ordezkarien tximiniatik. 1400 izenpeduraz goiti biltzea bi artzainen aska-

tzaren alde, ongi da. Baina iragan ne-guan izan diren sute ikaragarrien ez salatzea, nolako laguntza mota ote da? Zer egin da (dugu) gertakiaz, eta leku-ko/kanpoko debateaz haratago, suaren ematen ikasteko? Inpunitatea ote da aldarrikatzen? Egia ahal da jendeak pase-atu nahi badu mendietan, eskubide murriztu baten baitan baizik ez dabilela, azpi kategoriako baliatzaile bat bezala, perikak eta arriskuak bere gain?

Bigarren kea, beltza hau, akusazio aldetik entzun da, argumentu hauek desbideratuz. Kolonialismoaren mutur jakobinoa ezin izan du gorde. Euskara aretoan sartu izana jasangaitza egin zaie batzuei. Eta separatismoaren kua-kuarekin, obskurantismoa, feodalis-

moa (eta kasu ez zenez ere terroris-moa) hitz estaliz iradoki dute. Gailurra, mendeku ohar gisa ikastolen erratzea aipatzean du hunki batek. Giroaren jasta ematen du. Alta, aretoko euskara, mundu zaharrekoa da, ikastolen kontrakoa gehienetan, «halabeharrez» euskaradun dena. Hitz hartze horrek erakusten du nolako ikuspegi eta errabiak lo dauden euskaldunen eta beren hizkuntzaren inguruan, inkesta positibisten itzalean.

Egun hauetan, lumarik ez duen oilo mota bat aurkeztu da. Abantailak bali-tuzke denentzat. Ekoizleak lumaterik ez, eta jendartearentzat, orokorki, lu-matzea kenduz ez liteke hainbeste ur kutsa. (Industrialen amarru bat gehia-go).

Hemen ere, mendizalerik gabeko mendia onar liteke erraz, euskararik ga-beko Euskal Herria egiten balitz. Or-duan, elgar ulertzeko ez liteke arazorik!

Anartean, jantzirik denak ez du ahal-gerik biluzien artean den ber.

## kornerra

Mikel Elorza

Konponezina

**E**z dakit zein adituri irakurri nion biogenetikarena izango dela mende hau (aurrekoa informatikarena?). Zentzu-narena izango denik ez dirudi. Halako izenik hartzen ez badute ere, frankensteinez beteak daude mundu zabaleko laborategiak. Malaria kutsatzen ez duten eltxo transgenikoak *lortu* dituzte AEBetan. Klonatutako animalia zen-bait ezagutzen dugu, Dolly aitzindaria eta gero. Txinan ere ari omen buru-belarri. Eta Israelen, oraindik orain, lumarik gabeko oiloak *fabrikatu* dituzte. Eta horrekin batera, itxuraz arazorik gabe, garbizaletasun bolada bizi dugu, eta ez hizkuntzarena; balio moralena baizik. Kontserbadoreak nagusi dira. Baina munduan etorkinekin daude kezkatuta, eta terrorismoarekin; eta etxe mailan abortatzearekin eta antisorgailuekin, eta gazteek kalean kalimotxoak hartzearekin... Zenbaitena genetikoki ere ezin da konpondu.

[kornerra@egunkaria.com](mailto:kornerra@egunkaria.com)